



Gudarien etorbidea, z/g 20140 Andoain



zuzendariari@egunkaria.com



943 300 228

OHARRA: Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 le-
rro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izena, telefonoa, helbidea
eta NAREN zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, zuzendaritzak
bere esku du horretarako eskubidea. Erdaraz iristen diren gutunak ez dira argitaratuko.



zuzendariari

Zorionak Bellotako langileei

Bellota Legazpiko enpresako langileei zorionak eman nahi dizkiegu lanean duintasunez aritzeko borrokan erakutsi duten indarragatik.

Herri osoari erakutsi diote posible dela langile guztiok elkartuz gero patronalari aurre egitea eta lan baldintza duinagoak lortzea. Mundu orekatuago baten bila, pauso txiki eta polita eman dute, eta, horregatik, zoriontzaz gain, esker ona adierazi nahi diegu eman diguten erakustaldiagatik. Batasunaren lezioa eman baitigute langileok.

Legazpiko EHk, beste askok bezala, bat egin du langileekin. Eta hauen esker ona ere ikusi dugu.

Ez dugu ezer berririk egin, baina, antza, bai alkate jauna mintzeko adinakoa. Maiatzaren 6an, Gerhard Bähr-en omenaldia zela eta, komunikabide eta agintari asko bildu ziren udaletxeko ekitaldira. Alkateak eragotzi egin zien langileei udaletxera sartzea eta prestatua zuten komunikatua irakurtzea. Horrenbestez, EHko zinegotziak irakurri zuen idatzia, langileei elkartasuna adierazteaz gain, alkatearen jarrera autoritarioa salatzeke. Gainera, Bähr-en omenaldian parte hartu zuen pertsona dexente gerturatu zen zinegotziaren-gana Bellotaren egoeraz informazio gehiago eskatuz.

Bestalde, gezurra da, alkateak komunikabide batean argitaratu duen bezala, Bellotako langileak maitzaren 3an gugana etorri zirela, egun hartan komunikatu bat irakurtzeko asmoz eta guk irakurtzeari uko egin geniola. Alkate jaunak nahiko lan behar luke bere jarreraz gogoeta egin, beste inori egia ez den ezer aurpegiratu gabe, eta benetan udaletxe-

ko atea, eta ez despatxukoa soilik, herritar guztiei irekiz. **Eneko Iriondo** • (Legazpiko Euskal Herritarrok-en izenean)

2. mailako ikasleak

Sarrrikoko fakultatean maiatzaren 11ko gertakariaren aurrean, gure fakultateko Dekanoak eta bere Batzorde Iraunkorrek hartutako erabakiak euskal adarreko gogoetarako aukera eman digu. Gure irudipena da maiatzaren 11 hura abenduaren 20, urriaren 17, martxoaren 15... izan zitekeela. Azken finean, euskaldunon aurkako beste eraso bat gauzatu zen beste egun bat izan baitzen.

Lehenengo ostegunean, azken hamar urteetan bezala, aste kulturalari amaiera emango liokeen *Egin Dakizuna* deritzon ekitaldia ospatzera gindoazen Areto Nagusian, aste batzuk lehenago ikasleok prestatutako parodiak antzeztuko zirelarik. Baina emanaldia hastear zegoela protecskek kanpora botako gintuztelako mehatxupear berau egiteko batzorde iraunkorren debekua jaso genuen.

Monteroren hautaketak, dekretoko fakultate itxierak, UPNAko euskalduntze plangintzaren iruzurrak, UPVko plangintzaren estankamenduak eta abar luze batek erabakiak hartzerakoan ikasleok eta bereziki euskal ikasleok iritzia ez dela kontutan hartzen erakusten digute. Hitzek demokrazia askotan erabili arren, erabakiak hartzeko garaian unibertsitateko gehiengo osatzen dugun ikasleok hitza zokoratzeke ez dute inolako arazorik. Honen guztiaren isla nabarmena agertzen zaigu, erabakigune guztietan ikasleok presentzia oso mugatua izateaz gain, euskaldunona oro har are eta urriagoa da.

Behin eta berriz ikusi dugu euskal ikasleok gure hitza 2. mailakoa izatera zigortua dagoela unibertsitate honetan. Euskaldunok gure eskubideak bermatuta ikusiko baditugu, soilik euskal adarraren autonomia areagotzaren bidetik izan ahal izango da. **Iker Salaberria Urkizu eta Martin Garmendia Alvarez** • (Sarrrikoko Euskal Adarraren izenean)

Pozokoetxe ikastetxeko haziak

Gaur, unibertsitaterako sarbide-eskaera prestatzen nengoela, Pozokoetxe nire eskolarekin gogoratu naiz berriz ere. Eta zuokin, Jose Julio, Rafa, Koldo, Marian, Luis, Imanol... baita beste guztiekin ere. Zuok guongan zuon hazi liluragarria ezarri zenuen, eta pixkanaka hazi guzti haiei hostoak ateratzen ari zaizkie; lorea ez da oraindik antzematen, baina lasai egon, maitasun eta lasaitasunez landatzen eta ureztatzen den haziari beti loretxoa jaiotzen baitzaio... Zuok lorezain kementsuak baitzarete.

Nik ez dakit oraindik zergatik era ero honetan maite dudan nire bigarren sendia (lehenengoa, batzuetan) izan zena; baina susmatzen dut guztia zuon errua izan dela... eta niri, zorion-zorionekoa hazia jasotzeagatik, ez zait eskerrak berriz ere ematea baino geratzen. Heziketaren artisauek zaretelako zuok. Eta gu, Pozokoetxen ikasteko bentura izan genuenok, zuon buztin zatitxoa ginen.

Heziketa eta heldutasuna urteekin jasotzen omen da, bizitzaren joan-etorriekin eta kolpe ekidinezinekin; baina, nahiz eta ehun urte bizi, ni ez naiz ezer izango zuongatik ez bada. Hori zaretelako zuok: maisumaistra paregabeak. **Isabel Cardenas Cañon** • BASAURI (BIZKAIA)

galdeiozu...



Idoia Zenarruzabeitia

• EUSKO JAURLARITZAKO
LEHENDAKARIODEA •

Jaurlaritzak inoiz pentsatu du intsumisio fiskalik egitea Espainiako Gobernuari?

Andoni Oiarbide [Legorreta]

■ **LEHENENGO ARGITU** behar-ko genuke intsumisio fiskala zer den: Espainiako Estatuari Kupoa ez ordaintzea? Ba gu ez gara lurretik kanpoko batzuk, ezta arlote batzuk ere; beraz, inora ez garamatzan bide bat ez dugu jorratuko. Arazoa horrela planteatzea gure instituzioen finantzaketa iturriak ez ezagutzea da, zeren diru hori zerbitzu batzuen truke ordaintzen dugu. Ez bagenu horrela egingo, nork emango lizkiguke zerbitzu horiek? Alderantziz, argudioa bukaeraraino badaramagu, hau da, zerbitzu horiek guk emango bagenitu, edo, beste modu batera esanda, Estatu bat bagina, Europako Batasunari ere muzin egingo genioke, Europatik fiskalitate arloan datozen araudiei? Interdependentziaz jositako munduan bizi gara.

Maiatzaren 22tik aurrera Goio Monreal

• NAFARROAKO UNIBERTSITATE
PUBLIKOKO KATEDRADUNA

izango da Galdeiozu ataleko gonbidatua.
Bidali zure galderak ordurako.

• MONTXO •

